



**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA,
[REDACTED] JAUNAK ETA [REDACTED]
JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAK EZESTEN
DITUENA**

Espediente-zenbakia: 28/2015

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] jaunak eta [REDACTED] jaunak errekurtsoa jarri zuten 2015eko uztailaren 30ean (674228 zenbakiarekin erregistratu zen) Euskadiko Automobilismo Federazioaren Apelazio Batzordean (EAFAB aurrerantzean) planteatutako errekurtsoarean administrazio-isiltasunagatiko ustezko ezestearen aurka.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen, eta alderdi errekurrituari jakinarazi zion hamabost laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzen jotako frogaz-izapideak proposatzeko. Eskakizun horri 2015eko irailaren 2an erregistratutako idazki bidez erantzun zitzaion.



HIRUGARRENA.- Ikusirik errekurtsogileek epaile bakarra ([REDACTED] jauna) errefusatu zutela "(...) Federazioarekin duen lotura ekonomiko eta pertsonalagatik eta prozedura bideratzean eta orain jakinarazitako ebazpena ematean agertutako subjektibotasunagatik, alderdikeriagatik eta profesionaltasunik ezagatik", Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek, 2015eko irailaren 10ean egindako bilkuran, errefusatze hori epaile bakarrarengana helaraztea erabaki zuen, hiru egun balioduneko epean bere iritzia Apelazio Batzordeari helaraz ziezaion (eta Batzordeak instantzia honi).

LAUGARRENA.- Eskakizun horiei erantzuteko, epaile bakarrak Federazioaren aurka sustatutako errefusatzeari buruz zuen iritzia igorri zuen Federazioak berak aurtengo irailaren 23ko idazki batean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138 a) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsu hau aztertze eskumena.

BIGARRENA.- Aztergai dugun errekurtsuaren jatorrian, 2015eko martxoaren 1ean egindako GABIRIAKO XVII. RALLYSPRINT proban izandako gertakariak ditugu. Haien ondorioz, eta bidezkoa zen



ezohiko prozedura izapidetu ondoren, zigor-ebazpena eman zen. Ebazpen horren bidez, bi errekurtsogileei federazio-lizentzia kendu zitzairen, eta lasterketako zuzendariaren edota lasterketako zuzendariaren ondokoaren funtzioa betetzeko gaitasungabetu ziren urtebetez.

HIRUGARRENA.- Errekurtsogileek eskatzen zuten ezarritako zigorra ondoriorik gabe uzteko, eta honako arrazoi hauek argudiatu zituzten aurkaratzeko:

1.- Lehenik eta behin, arestian adierazi denez, epaile bakarra ([REDACTED] jauna) errefusatu zuten "(...) Federazioarekin duen lotura ekonomiko eta pertsonalagatik eta prozedura bideratzean eta orain jakinarazitako ebazpena ematean agertutako subjektibotasunagatik, alderdikeriagatik eta profesionaltasunik ezagatik".

2.- Prozedura izapidetzean egindako akatsa.

3.- Gertakariak ukatu eta haien egiaztapenik eza salatu ondoren, "tipikotasunik eza" izan zela adierazten zuten, eta subsidiarioki zigorra Euskadiko Automobilismo Federazioaren Diziiplina Araudiaren 5. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz graduatzeko eskatzen zuten.



4.- Azkenik, adierazitako Araudiaren 5.2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, kautelazko zigorra ezartzeko eskatzen zuten.

LAUGARRENA.- Adierazi denez, epai bakarra errefusatu eta errefusatzea izapidetu ondoren, interpelatuak adierazi zuen ez zegokiola planteatutako narrio edo salbuespena. Izan ere, ukatu egiten zuen "(...) ezein subjektibotasun eta alderdikeria mota agertu izana (...); lotura ekonomikoari dagokionez (...), bere zeregina ez du altruismoagatik betetzen, zerbitzu-errentamendupean baizik, abokatua eta kirol-zuzenbidean aditua den neurrian (...)".

30/1992 Legearen azalpen zatian adierazten denez, "Parte ez hartzeko eta errefusatzeko arrazoi objektiboen arautze komuna neutraltasun-printzipioa bermatzea bezainbeste da, eta, horretarako, zerbitzu publikoak interes partikularren eta interes orokorren arteko aurkakotasun oroz babestu behar dira".

Hori dela-eta, 30/1992 Legearen 29. artikulua xedatzen du aurreko artikuluan (hau da, parte ez hartzeko arrazoiak –interes pertsonala, ahaidetasuna, adiskidetasuna edo ikusezina, aditu edo lekuko gisa aritzea edota zerbitzu-harremana izatea– zerrendatzen dituen 28. artikuluan) aurreikusitako kasuetan prozeduraren edozein unetan



errefusa dezaketela interesdunek idatziz, eta idazki horretan arrazoiak adierazi beharko direla. Eta artikulua horretan gaineratzen denez, errefusatuak biharamunean alegatu den arrazoi beragan betetzen den ala ez esango dio bere nagusi hurrenari; betetzen bada, nagusiak ordezkoa jartzea erabaki dezake berehala; eta errefusatuak ez badu errefusatzearen arrazoi onartzen, nagusiak hiru egun izango ditu ebazteko, bidezko deritzen informazioak bildu eta frogak erdietsi ondoren.

Eta antzekoa dio urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak –Kiroi Diziplinari buruzko Arautegia ezartzen duenak– 21. artikuluan eta hurrengoetan.

Aztergai dugun kasuan, errefusatuak ukatu egin du prozeduran ezein subjektibotasun eta alderdikierarik agertu duenik, eta Batzorde hau bat dator baieztapen horrekin, alegatzaileek adierazitako gertakari edo arrazoibideetatik ez baita ondorioztatzen errefusatuaren inpartzialtasuna zalantzan jartzeko moduko susmorik. Izan ere, egindako lan edo zereginagatik ordainsaria edo konpentsazioa jasotzeak ez du esan nahi obedientzia- eta hierarkia-erlazio bat dagoenik. Hori ulertuko balitz, ez litzateke salatutako narrio edo salbuespenik egongo –errefusatzea–, gaitasungabetze- edo bateraezintasun-arrazoi bat baizik, kasu honetan eta esku hartu



duen gainerako kasu guztietan. Azken batean, ez da zalantzarik ikusten inpartzialtasun-itxuraren inguruan.

Hori horrela izanik, planteatutako errefusatzea ezestea eta sortutako gainerako gaiak aztertzen jarraitzea erabaki da.

BOSGARRENA.- Bigarrenik, argudiatzen dute akatsa egin dela prozedura izapidetzean. Izan ere, haien ustez oinarririk gabe jo da ezohiko prozedurara.

Berriz ere ezein gogoetatan oinarritu gabeko alegazio generiko baten aurrean gaude, eta, horregatik, adierazitako arrazoia ezetsi egingo da; gainera, gogorarazi beharra dago erabilera Diziplina Batzordeak duela esleitua Diziplina Araudiaren 38. artikuluan, ez, ordea, arrazoi arautuengatik, arautu gabekoengatik baizik. Egokitasun-arrazoi horiek balioetsi egin behar dira, betiere alde zurreko entzunaldiaren printzipioa betetzen bada, eta betekizun hori behar bezala beteta dago aztergai dugun kasuan (38.3 artikulua: "Interesdunen alde zurreko entzunaldiaren printzipioa eta interesdunek bidezkoak diren instantzien bitartez hartutako erabakien aurkako errekurtsua jartzeko duten eskubidea bete egingo da beti").



Azkenik, errekurtsogileek, gertakariak ukatu eta haien egiaztapenik eza salatu ondoren, "tipikotasunik eza" izan zela adierazi zuten, eta subsidiarioki zigorra Euskadiko Automobilismo Federazioaren Diziplina Araudiaren 5. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz graduatzeko eskatzen zuten.

Espedientean honako hauek daude jasota:

1.- Segurtasun-ordez kariaren txostena; bertan, 2015eko martxoaren 1ean egin zen Legazpi-Gabiriako XVII. Ralysprint proban izandako gertakariak kontatu ondoren, diziplinako epaile bakarrak orain errekurtsogileak direnei espedientea premiaz irekitzeko proposatu eta eskatzen zuen. Salatutako gertakariak lasterketako zuzendariak zein zuzendari ondokoak hartutako erabakiekin dute zerikusia. Izan ere, segurtasun-ordez kariak txanda batzuetan ibilgailu jakin batzuen irteera atzeratzeko ohartarazi zuen, baina ohartarazpen horiei entzungor egin zieten eta lasterketaren hasiera baimendu zuten, arriskutsutzat hartutako eremu jakin batzuetan ikusle batzuk gaizki kokatuta bazeuden eta haien segurtasuna arriskuan bazegoen ere.

2.- Diziplina-espedientea irekitzeko erabakia, martxoaren 16koa; bertan, arestian adierazitako txostena aipatu ondoren, egindako balizko arau-hausteez ohartarazten zen, hiru egun balioduneko epea



ematen zen alegazioak egin eta frogak aurkez zitzaten, eta, aldi berean, epaile bakarrak gertakariei buruzko txosten bat eskatzen zien [REDACTED] jaunari eta [REDACTED] jaunari.

3.- [REDACTED] jaunaren (lehiaketako lehen autoa irten aurreko azken segurtasun-ibilgailua den "0" autoko ofiziala) eta [REDACTED] jaunaren txostenak.

[REDACTED] jaunak lasterketako zuzendari [REDACTED] jaunaren jarduna baino ez du aipatzen, eta segurtasun-ordezkariek salatutakoa berresten du, baina [REDACTED] jaunak adierazi du lasterketako zuzendaritzari anbulantzia bat eskatu bazitzaion eta anbulantzia bidaliko zela agindu bazen ere, sorospena ez zela bidali lasterketa amaitu zen arte.

4.- Espedientepean daudenek ez zuten alegaziorik aurkeztu.

5.- Azken batean, ikusleen segurtasuna arriskuan jarri izanaren eta istripua izan zuen pertsona bat sorotsi ez izanaren erantzukizuna leporatzen zaie; nolnahi ere, gertakari horiek diziplina-araudiaren 15.1.e) artikuluan aipatzen dira, bertan arau-hauste oso larritzat hartzen baita "Federazioak kirol-instalazioen segurtasun eta higienerari buruz ezarrita dituen arauak ez betetzea, bertaratutako pertsonentzat oso arrisku larria dakarrenean".



6.- Jokabide horri 16.1 artikuluan aurreikusitako zigorra dagokio. Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

“1.- Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

- a)** Lizentzia urtebetetik bost urtera bitarteko aldi batez etetea.
- b)** Lizentzia kentzea.
- c)** 6.000 €-tik 60.000 €-ra bitarteko isuna.
- d)** Urtebetetik bost urtera bitarteko aldi batean karguak eta funtzioak betetzeko gaitasungabetzea.
- e)** Urtebetetik bost urtera bitarteko aldi batean egiten diren kirol-probetan edo kirol-lehiaketetan sarrera debekatzea.
- f)** Lehiaketa edo probatik behin betiko kanporatzea.
- g)** Lehiaketa edo probatik aldi baterako kanporatzea.
- h)** Jardunaldi edo proba bat baino gehiagori dagozkien puntuak edo sailkapen-postuak galtzea.
- i)** Zirkuitua aldi baterako ixtea (urtebetean gehienez).
- j)** Tarte horretan kirol-probarik ez egitea (urtebetean gehienez)”.

SEIGARRENA.- Aurreko guztia kontuan hartuta, ondorioztatu beharra dago behar bezala bete dela aplikatu beharreko zigor-prozedura, egotzitako gertakariak egin izanaren nabaritasun nahikoak daudela eta gertakari horiei arestian adierazitako zigorrak dagozkiela.



Ezarritako zigorrak a) eta d) letretan aipatutakoak direla kontuan hartuta, Batzorde honek uste du azkenean aplikatu direnak zigortuentzako egokienak direla, eta ez dago errekurtsogileek adierazitako asmo subsidiarioa betetzerik ("Subsidiarioki, eta ezarritako zigorrari dagokionez –urte 1–, Euskadiko Automobilismo Federazioaren diziplina-araudiaren 5. artikulura jotzen dugu esanbidez; bertan, zigorretarako irizpideak daude ezarrita, eta, zehazki, intentzionalitatea (ez da halakorik izan) eta ekintzaren edo ez-egitearen emaitza (ez da halakorik izan) dira".

Araudiaren 5.1 artikulua xedatzen duenez, "Zigorrek izaera hezigarria, prebentiboa eta zuzentzailea dute, eta haien ezarpenak interes orokorra eta kirol-interesa babestea izango du helburu beti. Zigorrak aplikatzean, arau-hauslearen intentzionalitatea eta ekintzaren edo ez-egitearen emaitza hartuko dira kontuan nagusiki.

Egia da aztergai dugun kasuan istripurik gertatu ez zela, baina egia da, halaber, zigorra ezartzeko erabakian adierazi denez, honako hau: "II.- Segurtasun-ordezkararen aginduak desobeditu izanaren eta bete ez izanaren, eta parte-hartzaile eta ikusleen segurtasuna arriskua jarri izanaren zuzeneko erantzulezat hartzen dira biak. III. (...) Arriskuan jartzeaz gain, istripua izan zuen pilotu bati ez zitzaion sorospena eman lasterketa amaitu zen arte, [REDACTED] jaunaren txostenean jasota dagoenez.



Hori guztia dela-eta, ezarritako zigorra berresten da, hots, urtebetez Federazioaren lizentzia etetea eta lasterketako zuzendariaren edo lasterketako zuzendariaren ondokoaren funtzioa betetzeko gaitasungabetzea.

Aurrekoa kontuan hartuta, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek honako hau erabaki du:

- 1.-** Planteatutako errefusatzea ezestea, eta errekurtsogileei errefusatuak aurkeztutako alegazioen idazkiaren kopia igortzea.
- 2.-** Ezarritako zigorra berrestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.



Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 22a.

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA